



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

---

## OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Arrunta

**Eguna:** 2023.02.28

**Ordua:** 18:00

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

### **Bertaratuak:**

- ALKATEA: Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

### **Bertaratu ez direnak:**

- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

### **AZTERGAIK:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. 1/2023 aurrekontu aldaketaren onespena.
3. Jai guneetan ematen diren eraso sexisten aurka jarduteko protokoloaren onespena.
4. Eskualdeko MEAP-a Udal Plangintzan barneratzeko eta erabilerak antolatzeko akordioa.
5. Arantzako eraikuntza orokorrari buruzko ordenantzaren 54. artikulua aldaketa. Hasierako onespena.
6. Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala.
7. Alkate ebazpenak.
8. Galderak eta eskaerak.
9. Arantzako Udalaren 5. poligonoko 987. lurzatiaren eta Leiza Mitxelena senideen 5. poligonoko 974. Lurzatiaren arteko trukaketa behin betiko onespena.

## 1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA

2023/01/18ko akta aho batez onartu da.

## 2. 1/2023 AURREKONTU ALDAKETAREN ONESPENA.

Idazkariak 1/2023 aurrekontu aldaketa azaldu du. Horretarako, aurrekontuaren aldaketa egin ahal izateko, 2023ko otsailaren 14ko kontuhartzailaren txostenean xedaturikoa azaldu du.

### 1/2023 ALDAKETA: KREDITU GEHIKUNTZAK (ATXIKITAKO FINANTZAKETA DUEN DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOTIK)

2023ko aurrekontuan 1 9200 6240001 "AUTO BERRIA" izeneko partida irekia zegoen 3.000,00 €-ko kreditu batekin. Horrela bada, auto berria IRURI MOTOR, S.L. kontzesionarioan erosi da, guztira egin beharreko gastua 17.500,00 €-koa izanik.

Horrela bada, 1.9.6. poltsan kreditu nahikoa ez dagoenez, 2022an erabaki askeko inbertsioak egiteko gastuetarako jasotako diru kopurua erabili daitekenez, atxikitako finantzaketa duen diruzaintzako gerakin likidotik aurrekontu aldaketa egin daiteke.

GASTUA:		
1 9200 6240001	AUTO BERRIA	14.500,00 €
FINANTZAKETA:		
1 8701001	ATXIKITAKO FINANTZAKETA DUEN GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	14.500,00 €

Ondoren, kreditu berezi eta gehigarri bidezko aurrekontu aldaketa denez, 10.8. oinarrian xedaturikoari jarraiki, osoko bilkurako akordio bidez onetsiko beharko da aldaketa, 9.4. oinarrian aurreikusitako tramite berei jarraituz.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ, ERABAKI DU:

- 1.- 1/2023 aurrekontu aldaketari onespena ematea.
- 2.- Udaleko iragarki oholean akordioa argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa.

### **3. JAI GUNEETAN EMATEN DIREN ERASO SEXISTEN AURKA JARDUTEKO PROTOKOLOAREN ONESPENA .**

Idazkariak 2023ko urtarrilaren 10eko Berdintasun zerbitzuko kudeaketa mahaian onartutako jai guneetan ematen diren eraso sexisten aurka jarduteko protokoloa eta horren inguruan hartutako akordioa azaldu ditu.

Horren arabera, protokoloa onartzearekin batera, bertze zenbait erabaki hartu beharrak direla adierazi du.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

1.- Jai guneetan ematen diren eraso sexisten aurka jarduteko protokolorako honako arduradun hauek izendatzea:

- Berdintasun teknikaria
- Markel Jorajuria Elizondo eta Beñat Mitxelena Damboriena.

Era berean, arduradunekin batera alkateak zuzentzea protokoloa.

2.- Protokoloarekin batera eranskin moduan agertzen diren adierazpen eta ohar eredu guztiak onartzea.

3.- Erasoen aitzinean udalak bando bat argitaratzea. Horrela bada, bandoaren erredakzioa erasoen momentuan egitea.

4.- Erasoen aitzinean udalean "Emakumeon aurka indarkeriarik EZ" pankarta zintzilikatzea.

5.- Ondoko erabaki hauek Eraso Sexisten Kontrako Mahaiaren eskuetan uztea:

- Kasuaren arabera erantzun instituzionala egitea erabakitzea.
- Musika emanaldia eta ospakizunak ze kasutan eta zenbat denboraz geldiaraziko diren erabakitzea.
- Elkarretaratze ofizialera deitzea.

6.- Jai guneetan ematen diren eraso sexisten aurka jarduteko protokoloaren gainontzeko idatzia onestea.

7.- Erabaki hau Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **4. ESKUALDEKO MEAP-A UDAL PLANGINTZAN BARNERATZEKO ETA ERABILERAK ANTOLATZEKO AKORDIOA.**

Ikusirik Arantza, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Eratsun, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oitz, Saldias, Urrotz eta Zubieta udalerriek 2020ko urriaren 26an sinatutako toki-arteko administrazio arteko lankidetzaren hitzarmena, udalerritan sinatzaileen lurralderako Merkataritza Erakarpen eta Antolamendurako Plan bat (aurrerantzean, Eskualdeko MEAP) lizitatu, kontratatu, garatu eta onartzeko, eta horren bidez Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 18. artikuluan ezarritakoa bete eta, ondoren, udalerritan bakoitzeko Udal Plan Orokorretan txertatzeko.

Kontuan hartuta 2022ko urriaren 19an, Eskualdeko MEAParen Jarraipen Batzordeak tresna hori hasieran onestea erabaki zuela, eta Doneztebeko Udalak, lehen aipatutako toki-arteko administrazio arteko lankidetzaren hitzarmenaren oinarrian, jendaurrean jarri zuela, 2022ko azaroaren 15eko eta 226. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez.

Kontuan hartuta 2023ko urtarrilaren 18an, jendaurrean egon ondoren, Eskualdeko MEAParen Jarraipen Batzordeak tresna hori behin betiko onartzea erabaki zuela.

Kontuan hartuta aipatutako toki-arteko administrazio arteko lankidetzaren hitzarmenaren hirugarren klausularen arabera, udal sinatzaileek Udal Plan Orokor bakoitzean barneratu eta txertatu behar dutela eskualdeko MEAPa, edo plan horren zehaztapenak.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ, ERABAKI DU:

- 1.- 2020ko urriaren 26an sinatutako toki-arteko administrazio arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz sortutako Eskualdeko MEAPa Arantzako Udal Plan Orokorrean barneratzea eta hura udal-plangintzako tresnen parte izatea onartzea.
- 2.- Eskualdeko MEAPak zehazten dituen merkataritza erabilerekin eta horien bateragarritasun eraentzen antolamenduari buruzko zehaztapenak eta jarraibideak udal hirigintza-plangintzan txertatzeko zerbitzuen kontratazioa erabakitzea, eta dagokion Udal Plan Orokorrearen aldaketa zehatua izapidetzea.
- 3.- Erabaki hau CEDERNA-GARALURi jakinaraztea eta adieraztea administrazio bideari amaiera ematen diola zehaztea eta honen aurka aurkez daitezkeen helegiteen berri dagokion jakinarazpenean azaltzea.

## **5. ARANTZAKO ERAIKUNTZA OROKORRARI BURUZKO ORDENANTZAREN 54. ARTIKULUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.**

Idazkariak Arantzako eraikuntza orokorrari buruzko ordenantzako 54. artikularen aldaketa egiteko udal arkitektoak 2023ko otsailaren 15ean prestaturiko txostena azaldu du. Era berean, aldaketa gauzatu ahal izateko irizpide juridikoen eta eman beharreko pausuen inguruan 2023ko otsailaren 22an prestaturiko txostena azaldu du.

Era berean, adierazi du ordenantzaren aldaketari hasierako onespena emateko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru legeko 325. artikuluan xedaturikoa jarraitu beharra dela

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ, ERABAKI DU:

- 1.- Eraikuntza orokorrari buruzko ordenantzako 54. artikularen aldaketari hasierako onespena ematea.
- 2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrek aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ezean, behin betikoa egitea testua eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## **6. MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta toki ezberdinetatik. Erran dugu behin baina gehiagotan, pandemiak agerian utzi duela feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaurgarria eta dependientea da. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Krisiaren azaleratzeak batzuegan eragiten duen paralisiaren aldean, mugimendu feministaren deiarekin bat egiten dugu. Diskurtso hutsaletatik, elkarlanerako eta sistema publikoaren defentsarako bideak ezarri eta eraikitzeke garaia da.

Herritar guztion bizitzek ez dutelako berdin balio gure herrian. Eta bizitza horien zaintza ez da modu berean egiten. Gogor salatzen ditugu zaintzarekin negoziua egin eta eskubidea merkantzia bilakatzen duten politikak eta enpresa kapitalistak. Zaintzaren merkantilizazio eta familiarizazioa da sustatzen den eredia, eta honek etxeko eta zaintza sektoreko langileen esplotazioa dakar. Sektorea desarautua batzuen kasuan, eta konbenio ezberdinetakoa besteen artean.

Egoitzetako zein etxez etxeko langileak, gehienak emakumeak, lan baldintza duinen aldeko borrokari heldu behar izan diote etengabe haien egoera hobetzen saiatzeko, ez baita etorri instituzioen partetik, pandemia ostean ere ez, berau erregulatzeko eta duintzeko inolako urratsik. Feminizatutako eta prekarizatutako sektore honek, zaintzen krisiaren erresoluzio sexistaren beste

albo kaltea dira, askoren ahotan dagoen soldata arrakalaren eragile nagusietakoa. Gizarte-zerbitzuetan ez dago plaza publikoen garapen nahikorik, zaintza-premien aurreko arreta publikoa murriztu egin da. Honen aurrean, aukera duten familiek zerbitzu pribatuetara jo behar izan dute baina askok abusuzko klausulei eta egoitza pribatuetako hileroko ordainketaren garestitze bortitzari, 300 €-tik gora kasu batzuetan, aurre egin behar diete. Horiek zerbitzu-txekearen ereduaren albo-ondorioak dira, legearen aurkakoa dena. 2800 familia omen daude egoera honetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Behatuzen datuen arabera.

Krisi egoera honi egoki erantzun dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, eta ezinbestekoa da, eremu hau ere horretara aktibatu eta soluzio berriak mahai-gaineratzen hastea. Errealitate gordin horren aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarrizketa-guneak bultzatu eta indartuz.

Horregatik guztiagatik, Arantzako Udaleko osoko bilkurak, honako hau erabaki du:

- Zaintza mahai bat martxan jartzea. Zaintza sistemari buruzko analisia egin eta honen konpromiso kolektiboari heltzeko estrategia publiko-komunitarioak diseinatzeko eta abian jartzeko elkarrizketarako erabakigune bat. Parte hartu beharko dute, besteren artean: udal teknikari eta kargu publikoek, eragile sindikalek, sozialek, mugimendu feministak eta bestelako herri-mugimenduek ere.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren eredia eta funtzionamendua egokitzea/berrantolatzea eta/edo zabaltzea, identifikatutako beharrei erantzuteko eta lan-baldintzak duintzeko asmoz.
- Eguneko zentroen eredia eta zerbitzuaren azterketa egitea eta honen arabera berau egokitzea/berrantolatzea eta/edo zabaltzea, identifikatutako beharrei erantzuteko eta lan-baldintzak duintzeko asmoz.
- Gure udalerriko/lurraldeko etxeko langileen egoera identifikatzea eta aztertzea (zerbitzu sozialen eta tokiko kolektiboen bidez), eta haien lan eta bizi baldintzak hobetzeko programa integralak abian jartzea, besteak beste: kontzientziazio kanpainak, etxebizitzarako eta langileen erroldarako eskubidea bermatzeko ekimenak, aholku zerbitzuak martxan jartzea, etab.
- Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.
- Egoitzetako zaintza eredia premiaz berrikustea, mugimendu feministaren, senitarteko-elkarteen, zaintzaileen eta abarren parte-hartzearekin, zaintza duinen premisari erantzunez, zaintza ematen eta jasotzen dituenarentzat.
- Euskal Herriko Mugimendu Feministak abiatu duen dinamikarekin bat egitea, hasteko eta behin, Martxoaren 8ko deialdiak babestuz eta herritarrei bertaratzeko deia eginez. Hortik aurrera landuko den prozesuan eragile aktibo bezala parte hartzeko eta ardurak hartzeko konpromisoa adierazten dugu.

## **7. ALKATEAREN EBAZPENAK.**

1BIS/2023, 3/2023tik 13/2023ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

## **8. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egiten.

Halaber, hurrengo osoko bilkura martxoaren bigarren astetik aitzin izanen dela jakinda eta honako akordio hau hartzeko dagoen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, honako puntu hau osoko bilkura honetan eztabaidatu daitekeela dio idazkariak.

## **9. ARANTZAKO UDALAREN 5. POLIGONOKO 987. LURZATIAREN ETA LEIZA MITXELENA SENIDEEN 5. POLIGONOKO 974. LURZATIAREN ARTEKO TRUKAKETA BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Idazkariak azaldu 2021eko ekainaren 22ko Arantzako Udalaren osoko bilkura arruntean onetsi zela Arantzako Udalaren 5. poligonoko 987. lurzatiaren eta Leiza Mitxelena senideen 5. poligonoko 974. lurzatiaren trukaketa. Horrela bada, Nafarroako toki entitateen ondasunen erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 2807/1990 Foru Dekretuaren 129., 130. eta 131. artikuluetan xedaturikoari jarraiki, trukaketaren iragarkia 2021eko uztailaren 12ko 161. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, hamabortz egun balioduneko epean bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkeztu zezaten.

Horrela bada, idazkariak adierazi du jendaurreko epean ez direla erreklamazio, kexa edo oharrak aurkeztu. Beraz, lehen aipaturiko araudiko artikuluetan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 132. eta 135. artikuluetan xedaturikoari jarraiki trukaketa behin betikoa egingen da eta eskritura publikoan bildu daiteke.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

1.- Arantzako Udalaren 5. poligonoko 987. lurzatiaren eta Leiza Mitxelena senideen 5. poligonoko 974. Lurzatiaren arteko trukaketa behin betiko onestea.

2.- Arantzako Udalaren 5. poligonoko 987. lurzatiaren Udal Ondasunen Inbentarioan eta Jabetza Erregistroan immatrikulatzea.

3.- Arantzako Udalaren 5. poligonoko 987. lurzatiaren eta Leiza Mitxelena senideen 5. poligonoko 974. lurzatiaren arteko trukaketa eskritura publikoan biltzea.

4.- Alkateari ahalmen nahikoa ematea aipaturiko trukaketa eskritura publikoan biltzeko eta gainontzeko izapideak egiteko.

5.- Udal Ondasunen Inbentarioa eta Jabetza Erregistroan, dagokion ondorioetarako, trukaketako negozio juridiko emaitza inskribatu.

Bertze aztergairik izan gabe, 19:00 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

**ALKATEA,**



Dabid Iturria Almandoz



**IDAZKARIA,**



Nagore Madariaga Iriarte